



ostiko bidaiari

## FUNTSEZKO SOZIETATEAK / ELKARTEAK

Argi dago beste bazkide- edo hornitzaile-sareekin elkartzea oso lagungarria eta beharrezkoa izan daitekeela gure proiektua aurrera eramateko. Hainbat elkarterekin harremantzea ezinbestekoa izango da, gure bezeroei ahalik eta arreta hoberena emateko. Hauen artean janaria distribuituko dutenak, edaria distribuituko dutenak... daude, besteak beste. Horretarako, gure enpresa sortzeko, "Vipreforma", "MAKRO", "IKEA" eta "Wix.com"-rekin aliantzak egingo ditugu.

Batetik, eraikina lortzeko, herri bakoitzeko udalatxearekin kontaktatu beharko genuke beraien baimena izateko erabilerarik ez duen eraikin batean proiektu hau sortzeko. Udaletxearekin kontaktatuko dugu lana errazteko eta merkeagoa izateko helburuarekin. Behin beraien baimena dagunean, eraikinan bertan erreforma egiteko "Vipreforma" enpresarekin kontaktuan jarriko gara gure nahien arabera eraikinean bertan erreforma egiteko eta horrela, eraikin horri probetsua ateratzeko.

Horrez gain, oso beharrezkoa da hoteleko buffet-erako janaria eta edariarekin lagunduko gaituen enpresa batekin harremantzea. Ezinbestekoa da hotel bakoitzerako janari mota desberdina beharko dugula aipatzea, izan ere, janaria ere hotela oinarrituko den



lurraldekoa izango da. Adibidez, japoniar jatetxe batean dagoen janaria eta italiar jatetxe batean dagoena ez da berdina. Gure hoteletarako "MAKRO" enpresarekin kontaktatu nahi dugu, izan ere, haien produktuen eskaintza oso zabala da eta aukera ekonomikoak eskaintzen dituzte. Gainera, produktuak kantitate handietan erosteko aukera ematen dute. Laburbilduz, gure beharretara guztiz egokitua dagoen enpresa da.

Gainera, hotelean bertan altzairuak ipintzea ezinbestekoa izango da, hau lortzeko "IKEA" enpresarekin harreman bat sortu nahi dugu. Enpresa hau



ostiko bidaiari

erabakitzearen arrazoia haien produktuen prezioak eta kalitatea dira, izan ere, urte askotarako iraun dezakete eta oso ekonomikoak dira. Hasteko diru asko ez dugunez, oso garrantzitsua da guretzat kalitatezko produktuak merke eskuratzea, horregatik IKEA hautatu dugu. Horrez gain, oso eskaintza zabala dutenez, ziur gaude hotel bakoitzerako altzairu egokiak aurkituko ditugula.



Hori guztia alde batera utzita, **wix.com** enpresarekin kontaktuan jarriko gara gure web orria sortzeko. Oso lagungarria izan daiteke web orria sortzea ostalariak erakartzeko eta behar dutenean informazioa eskuratzeko.



Oso enpresa handi bat sortu nahi dugu, eta nahiz eta motibazioa eta gogoak eduki, ezingo dugu lan guztia bakarrik egin, beraz, sozietate batzuekin kontaktatzea eta lan egitea oso onuragarria izango da. Batez ere, hau baliabideak eskuratzeko egingo dugu, baina enpresen arteko kooperazio honek era berean arriskuak murriztu eta negozio eredua optimizatu dezake, elkarte hauekin horrela, gure balorezko proposamena gauzatu ahal izango dugulako.

Horrez gain, behin enpresa sortua dagoenean, bezeroak erakartzeko beste hainbat enprekin egingo dugu aliantza. Aliantza hauetan beste enpresek zerbait eskainiko digute, bezeroak, eta guk haiei beste zerbait. Hau da, harreman onuragarria izango da bientzat. Enpresa hauek "trivago" eta "booking" erako enpresak, "EHU/UPV" eta "Gazte aukera" izango dira.

Alde batetik, hotelak sortuko ditugunez, ezinbestekoa da guretzat **trivago** eta **booking** enprekin elkartzea, besteak beste. Izan ere, era honetako enpresek gure zerbitzua publiko zabalago batera iristea ahalbidetzen dute, era berean, guretzat



ostiko bidaiari

gasturik suposatu gabe. Hotelak iragartzen dituzten enpresen artean bi hauek dira garrantzitsuenak, horregatik aipatu ditugu, baina, honelako enpresa gehiago aurkitzen baditugu edota berriak sortzen badira, dudarik gabe haiekin kontaktatuko dugu gure zerbitzua iragarri dezaten.

Bestalde, **Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco**-rekin aliantza sortzea erabaki dugu, izan ere, gertuen dugun unibertsitatea da eta hauek gure



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

enpresaren publizitatea egiteak hainbat ikasle gazte erakarri ditzazke gure hotelera. Trukean, guk ikasleei disfrutatzeko aukera emango diegu deskontuak eskainiz.

Amaitzeko, **"Gazte aukera"**-rekin harremanetan jarriko gara. Euskal Herriko ia gazte guztiok gazte txartela dutenez, txartela horrek hotela merkeagoa izateko aukera emango du. Horren truke, jendeak txartela gehiago erabiltzea izango da enpresa honentzat eskainiko dugun onura, izan ere, beraiek publizitatea egingo digute eta gazte gehiago azalduko dira deskontu horrekin gure proiektuan parte hartzera.

Laburbilduz, argi dago enpresa hauekin kontaktatzea oso onuragarria izango dela gure enpresarako baliabideak eskuratzeko, negozio eredua optimizatzeke, arriskuak murrizteke eta batez ere, bezeroak erakartzeko eta haiei proiektua baldintza hoberenetan eskaintzea.